

Uxue Iruretagoiena Andres

B maila • 2 saria

15 urteko neskatila Zaldibitar bat naiz, eta nire izena Uxue Iruretagoiena Andres da. Aurten, DBH3 egiten ari naiz Ordiziako Jakintza Ikastolan.

Hainbat gauza egitea dut gustuko, hala nola, margotzea, musika instrumentuak jotzea, kirola, idaztea eta nola ez bertsoak sortzea. Orain dela urte batzuk hasi nintzen bertsoen munduan, eta geroztik, errima eta doinu gozoen artean nabil murgildurik.

Nire bertso hauetan, arrantzale baten istorioa isladatu nahi izan dut, hauen lanbidea, garrantzitsua eta era berean astuna iruditzen zaidalako. Denborak ere, itsasoan aurrera egiten du, baina etxean, familiakoekin zaudenean baino astiroago.... Hori guztia erakusteko modurik onena zein, eta bertsoen bidez dela deritzot! Hori dela eta, doinu polit bat aukeratzea gomendatzen dut eta arrantzale honen bizimodua abesten hastea besterik ez!



ITSASOAN ZE HAR MURGILDUZ

Herriko portu txikian daude
emazte eta alaba.
Malko mingotsez betea dago
alabaren begirada.
Goxotasunez galdetuz biek:
zu noiz bueltatuko zara?
Irrifar txiki batekin diot:
laster elkartuko gara.

Aurre egitea tokatzen zaigu
gose nahiz diru faltari,
horretarako beharrezkoa
eustea lan gogorrari.
Arrantzale bat izatea da
tokatu zaidana niri.
Denbora luzez itsason pasaz
jarraituz bide onari.

Arrantza ontzi zaharra doa
ur gazietan aurrera,
gizon batzuek osatzen dugun
eskifaiakin batera.
Bakoitzak bere lana egoki
betetzea du papera.
Horrela bada joango gara
ordainsaria hartzera.

Asteak pasa, egunak joan,
hemen berdina da dana:
sareen bidez arrantzatzea,
hori dut betiko lana.
Legatz, bakailo eta muxarren
usain txarra dut jasana,
halere tripak ateratzeaz
badaukat nik zer esana.

Zerurantz beida jartzea dut nik
gustuko gau ilunetan,
olatuk sortzen dituzten ritmo
atsegin da lasaietan.
Izarrak urrun ikustean dut
familia gogoetan.
Haien disdira antzematen dut
nahiz eta ez egon bertan.

Jadanik heldu zaigu etxera
bueltan joateko ordua.
Ezinegona, alaitasuna,
poza dut sentimendua.
Itsasoari eskertzen diot
eskeini bizimodua.
Orain agurtzen zaitut ur urdin,
adio, itsas mundua!